

ADEL

XX
urte

ArteDrama Euskal Laborategia



2025

APIRILAREN 21ETIK 26RA

AULESTI

ANTOLATZAILEAK



Aulestiko Udala

Arte
Drama

BABESLEAK

Bizkaia

ERAZKOINAKO
GOBERRA

LAGUNTZAILEAK

ACX

AXUTI

ILUN-ZARR

Lea

HITZA

burdinola
safer labs

CARTONAJES
ERABIL, S. A.
KARTOI KUTXAK

LE NOUVEAU MENÚ DU CHEF

Arene Onaindia Abrisketa

21

Jatetxe famatu bateko sukaldariak zopa bat egiteko agintzen dio bere sukalde-laguntzaileari.

Laguntzailea, haren aginduak jarraituz, sukaldatzen hasten da, baina nahiz eta bere pausu berberak jarraitu, amaierako produktua oso desberdina da.

Lortuko al dute bien artean zopa on bat egitea? Zein izango ote da chefaren sekretua?

21:00
Aretoan



HUSTU

Aitzol Iraola

21

Gorputz bat hutsaren bila dabil oihartzunez betetako espazio batean. HUSTU bidaiaria bat da: mugimendutik sortzen dena, sorkuntza astintzen duena, interpretea bere buruarekin aurrez aurre jartzen duena. Site-specific honetan, gorputza, ahotsa eta espazioa elkarrizketa bizian elkartzen dira, erortzen uzteko amildegia eta husteko ekintza erradikala arakatuz. Ariketa intimo eta kolektiboa, non unean bertan dauden pertsonak osatzen duten obra, sortzaile, interprete eta ikuslearen arteko mugak ezabatuz.

HUSTU bertigoa da. Hutsa da. Jauzi partekatua da.

Ondoren
Aretoan



ARTXIBO BILUZIA

Metrokoadroka Kolektiboa

22

Joan Mari Torrealдай atxilotu zutenean, poliziak bere etxetik dokumentu zenbatezinak eramane zituen; “Biluzik utzi ninduten, ez fisikoki, bai intelektualki”, kontatuko zuen beranduago. ARTXIBO BILUZIA pieza sortzeko egun

21:00
Aretoan



23

21:00
Aretoan



24

22:00
Frontoian **5€**



hartan hutsik geratutako karpeta bat irudikatu dugu, eta baliabide eszenikoekin betetzen saiatu gara, gure buruari eta publikoari galdera hau eginez: “Zer istorio nahi zenuke historiara pasatzea?”.

Konferentzia performatiboa, dokumentu-antzerkia eta umorea uztartzen dituen pieza eszenikoa da ARTXIBO BILUZIA. Bi aktore ikusiko ditugu eszenan, publikoarekin elkarrizketan, ikerketa bat abiatzen, dokumentu bat akzio fisikoaren pizgailua izan daitekeen frogatu nahian.

MENDIA

Mikele Urroz

Mendi oro jaiotzen da talka batetatik, elkarrengana poliki hurbiltzen diren bi plaken arteko kolpe motel eta bortitzetik. Biek suntsitzen dute bidean aurkitzen duten oro, gailur bat sortu arte. Bi indarren arteko topaketa katartikoa da. Maitasunaren antzeko zerbait. Honelakoa izan zen nirea, behintzat. Honela jaio zen nire mendia. Mendikatea zeharkatu, ezusteko ekaitzei aurre egin eta hildako alpinistekin topo egin eta gero – beste garaietako sekretuak kontatuko dizkidatenak akaso, azkenik, mendia mintzatuko zait.

PLATEA

Tripak

(brindis bat) ataria ur jauzi bat da
(malkoz betea)
mahai gainean itsasoratzen da
(hilobi bat)
eta hortik erori eta zabaldu
(padurak)
gorputzak bata bestearen atzetik
(ahizpak, ahizpak!)
hemendik igaroko gara
(gure zauri itzela) hara irteteko
(Platea)

MIÑAN

Artedrama

25

22:00

Frontoian 5€

Ibrahima kamioi batean zebilen apendiz Ginean, egun batean amak deitu zuen arte: anaia txikia falta zen etxean. Eta haren bila abiatu zen. Basamortua gurutzatu; pasatzaile, polizia, bahitzaileekin topo egin; egarria, gosea, mina ezagutu. Afrikatik Europarako bidea.

MIÑAN, Ibrahima Balderen bizitzaren kronika da, berak ahoz kontatua, Amets Arzallusek letraz idatzia, eta Artedramak antzerkira moldatua.



ITZULERA

Dejabu

26

22:00

Frontoian 5€

Konpainia bateko hiru kideek Mexikora eginiko bidaiak kontatzen du antzezlanak. Dokumental bat grabatzera joan dira krisi kreatiboan dauden kideak, Etxepare Euskal Institutuak emandako dirulaguntza bati esker. Ezusteko gertakari batek zeharo aldatuko du bidaiaren norabidea ordea.

Zuzenean sortutako filma baten moduan eszenaratzen da lana. Hiru antzezleek gain, David Aguilar zinegilea egongo da oholtzan, zuzeneko irudien sorkuntza eta errealizazioan. Komedia existentzial honetan ez dira faltako abentura, paisaia psikodelikoak eta bizia salbatuko dien txakur chihuahua bat.

Esperientzia errepika ezina izango da emanaldi bakoitza. Gonbidatuta zaude festa honetara!

